



Europako programen gidaliburua

Diseinua eta maketazioa: Olga Madina
Koordinatzailea: Arantxa Rodriguez
Itzultzea: Itzuliz Itzulpen Zerbitzua
Argitaratzailea: Cederna Garalur Elkartearen Europe Direct

Harremanetarako

Cederna Garalur Elkartearen Europe Direct
Berriobide kalea 40, 001 bulegoa
CP31013 Antsoain (Nafarroa)
Telefonoa: 948 20 70 59
Posta elektronikoa: arodriguez@cederna.es
www.cederna.es/europa

Cederna Garalur Elkartearen Europe Direct Europako Batzordearen Informazio eta Komunikazio Zuzendaritza Nagusiaren Europe Direct Europari buruzko informazio-sareko partaidea da.

Nafarroan inprimatua 2009ko abenduan

"Europako Batzordeak ez du bere gain hartuko argitalpen honetan dagoen informazioaz egin daitekeen erabilerraren erantzukizunik."

Europako programen gidaliburua

Kultura

gazteria

udalak

ikertzaileak

ikasi

berritu

teknologia

Europa

enpresak

kontsumitzaileak,

enplegua

elkartasuna

natura

Aurkibidea

SARRERA	4.or.
PROGRESS: Erkidegoaren programa enplegurako eta gizarte-elkartasunerako	5.or.
Erkidegoaren programa, kontsumitzaileen politikaren arlokoa	6.or.
Gazteria ekinean	7.or.
LIFE +: Ingurumenerako finantza-tresna	8.or.
MEDIA: Europako ikus-entzunezkoen sektoreari sostengua emateko programa	9.or.
Ikaskuntza iraunkorraren arloko ekintza-programa	10.or.
KULTURA: Kultur egitasmoa	11.or.
Berrikuntzarako eta lehiakortasunerako programa	12.or.
"Safer Internet" programa, haurrak Interneten eta bestelako komunikazio-teknologiaren erabileran babesteari buruzkoa	14.or.
Ikerketa eta Garapen Teknologikorako zazpigarren Esparru Programa	15.or.
"Europa hiritarrekin" programa	17.or.

SARRERA

Europako programak

Zer dira?

Laguntza Europako Batzordeak berak, zuzenean, kudeatzen eta onuradunei ematen dienean (erakunde publikoak nahiz pribatuak -unibertsitateak, enpresak, GKEak, eta abar), oro har, programa europarrez ari gara.

Programa europarrak Erkidegoaren jarduera-tresnak dira, Europako Erkidegoaren politiken helburuak erdiestera bideratuak, praktikara eramanez, eta horietatik lortu asmo diren emaitzak eredu adieraziz.

Jarraian aurkeztuko ditugun programak Zuzendaritza Nagusietatik zuzenean egituratzen eta kudeatzen diren programak dira.

Zein dira horien ezaugarriak?

- Hainbat urtetarakoak izatea; hau da, hainbat urtez irauten dute, eta deialdiak aldizka egiten dira.
 - Estatuz haraindikoak dira, gehienetan beste Estatu kideetako eta/edo hirugarren herrialdeetako bazkideak behar izaten baitira.
 - Erakusle efektua; proiektu pilotu eta berritzaileak dira, Europako politikekin lotura duten arazoei konponbidea emate aldera.
- Bereizi behar dira programa europarrak eta egitura-funtsekin finantzatzen diren ekimenak; azken hauek, kudeaketa deszentralizatu bitartez ezartzen dituzte Estatu kideek.

PROGRESS

Erkidegoaren programa (2007-2013) enplegurako eta gizarte-elkartasunerako

Gaiak: Gizarte-arloko proiektuak

Programaren iraunaldia: 2007-2013

Programaren aurrekontua: 743.250.000 euro

Deialdiak: urtero berariazko hainbat deialdi irekiko dira

Erkidegoaren finantzazioa: deialdiaren arabera, gehienez ere % 80

Subentzio-mota: Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza

Programaren HELBURU nagusia

Progress programa Europar Batasunak enplegu eta gizarte-gaien arloan dituen helburuak betetzeko diru-laguntza ematera bideratua dago.

Programa honako bost ataletan banatuko da:

1. Enplegua
2. Gizarte-babesa eta gizarteratzea
3. Lan-baldintzak
4. Diskriminaziorik eza eta aniztasuna
5. Genero-berdintasuna

Diruz lagun daitezkeen ekintzak:

ondoren aipatzen diren helburuetatik bakarren bat lortzera bideratutakoak:

- Estatu kideetan eta parte hartzen duten beste herrialdeetan bizi den egoeraren ezagutza eta ulermena hobetzea, analisien, ebaluazioen eta politiken jarraipen estuen bitartez.
- Estatistika-metodoak eta tresnak eta guztiarentzat izanzen diren adierazleak garatzea bultzatzea; hala dagokionean, sexuaren eta adin-taldearen arabera banakatuak.
- Hala dagokionean, Estatu kideetan Europako Erkidegoaren legeak, eta Erkidegoaren helburu politikoak ezartzea bultzatzea eta kontrolatzea, eta horien eraginkortasuna eta eragina ebaluatzea.
- Europa mailan sareak sortzea, elkarrekin eta elkarrengandik ikastea, eta jarduera onak eta ikuspegi berritzaileak zehaztea eta zabaltzea bultzatzea.
- Alde interesdunak eta, oro har, publikoa sentsibilizatzea bost ataletako bakoitzean Erkidegoak lortu asmo dituen politiken eta helburuen inguruan.
- Europako sare nagusien gaitasuna hobetzea, hala dagokionean, Erkidegoaren politikak eta helburuak sustatzeko, horiei sostengua emateko eta garatzen jarraitzeko.

OINARRI JURIDIKOA (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

EBAO L 315/01, 2006/11/15. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1672/2006/EB erabakia, 2006ko urriaren 24koa, enplegurako eta gizarte-elkartasunerako Erkidegoaren programa, Progress, ezartzen duena.

Erkidegoaren programa, kontsumitzaileen politikaren arlokoa

Gaiak: Prestakuntza, osasuna, kontsumoa.
Programaren iraunaldia: 2007-2013
Programaren aurrekontua: 156.800.000 euro.
Deialdiak: urteko berariazko hainbat deialdi irekiko dira
Erkidegoaren finantziakzioa: gehienez % 50
Subentzio-mota: Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza

Programaren HELBURU nagusia

Programa honek Estatu kideen kontsumitzaileekiko politikak bultzatuko eta zainduko ditu, eta kontsumitzaileen osasuna, segurtasuna eta interes ekonomiko eta juridikoak zaintzen lagunduko du. Halaber, kontsumitzaileek informazioa eta hezkuntza jasotzeko duten eskubidea, eta beren interesak defendatzeko aldera antolatzen duten eskubidea bultzatzen lagunduko du. Proiektuek nabarmen lagundu beharko dute kontsumitzaileen europar politika gauzatzen.

Diruz lagun daitezkeen ekintzak:

1. 1. helburua: Kontsumitzaileen babes-maila altua bermatzea:

- **1. ekintza:** kontsumitzaileen politika lantzeko, eta kontsumitzaileen interesak Europako Erkidegoaren beste politiketan txertatzeko oinarri objektiboa izanaren diren datuak eta informazioa biltzea, elkari trukatzeko eta horien analisia egitea.
- **2. ekintza:** kontsumorako ondasunen eta zerbitzuen segurtasunari buruzko oinarri objektiboa izanaren den dokumentazioa emanaren datuak eta informazioa biltzea, elkari trukatzeko eta horien analisia egitea, eta ebaluazio-tresnak sortzea.
- **3. ekintza:** irizpen zientifikoak erabiltzea eta arriskuak ebaluatzea bultzatzea.
- **4. ekintza:** lege-neurriak eta izaera erregulatzaileko eta autoerregulatzaileko ekimenak arautzeko eta promozionatzeko bestelako ekimenak prestatzea.
- **5. ekintza:** finantza-ekarpenak, Europako kontsumitzaileen erakundeen jarduerarako.
- **6. ekintza:** Erkidego mailan produktu eta zerbitzuetarako arauak garatzen kontsumitzaileen interesak ordezkatuko dituzten Europako kontsumitzaileen erakundeen finantza-ekarpenak.
- **7. ekintza:** eskualde, nazio eta Europako kontsumitzaileen erakundeen gaitasuna finkatzea.

2. 2. helburua: Kontsumitzaileen babeserako arautegia eraginkortasunez ezartzen dela bermatzea:

- a. 8. ekintza: Kontsumitzaileen babeserako Erkidegoaren legeria eraginkortasunez ezartzen lagunduko duten ekintzak.
- b. 9. ekintza: Aholkularitza juridikoa eta teknikoa.
- c. 10. ekintza: informazioaren, aholku ematearen eta helegite-bideen inguruko ekintzak
- d. 11. ekintza: kontsumitzaileak hezteko ekintzak.

OINARRI JURIDIKOA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1936/2006/EE Erabakia, 2006ko abenduaren 18koa, kontsumitzaileen politikaren arloan gizarte-ekintzako programa bat ezartzen duena (2007-2013).

Gazteria ekinen

Gaiak: Nazioarteko lankidetzak, turismoa, kirola, kultura eta ondarea.

Programaren iraunaldia: 2007-2013

Programaren aurrekontua: 885.000.000 euro

Deialdiak: urteko berariazko hainbat deialdi irekiko dira

Erkidegoaren finantziakzioa: gehienez % 80

Subentzio-mota: Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza

Programaren HELBURU nagusia

"Gazteria ekinen" izeneko programaren xedea da Europar Batasuneko gazteriaren arloan lankidetzak garatzea. Programaren helburu orokorrak honako hauek dira:

- Oro har, gazteen herritartasun aktiboa, eta, zehazki, europar herritartasuna europarra bultzatzea;
- Gazteengan elkartasuna bultzatzea, eta gazteen tolerantzia bultzatzea, batez ere, EBren gizarte-kohesioa indartzeko aldera;
- Herrialde desberdinetako gazteen artean elkar ezagutza bultzatzea;
- Gazteen ekintzei sostengua emateko sistemen kalitatea hobetzen, eta gazteriaren arloan gizarte zibileko erakundearen gaitasuna indartzen laguntzea.
- Europar lankidetzak bultzatzea gazteriaren arloan.

Diruz lagun daitezkeen ekintzak:

Programako helburu orokorrak eta berariazkoak honako ekintza hauen bitartez lortuko dira:

1. Gazteria Europarekin:
 1. Gazteen arteko elkar turkatzeak.
 2. Gazteen ekimenak.
 3. Gazteen proiektuak eta demokrazia.
2. Europako boluntariotza zerbitzua.
3. Gazteria munduan:
 1. EBko herrialde inguruko herrialdeekiko lankidetzak.
 2. Beste herrialdeekiko lankidetzak.
4. Gazteriaren sostengu-sistema:
 1. Gazteriaren sektorean eta gazte-erakundeetan lan egiten duten pertsonen prestakuntza eta sare-konexioa.
 2. Gazteriaren Europako Foroari sostengua.
 3. Gazteriaren sektorean eta gazte-erakundeetan lan egiten duten pertsona sare baten prestakuntza eta sare horrekiko konexioa.
 4. Berrikuntza eta kalitatea suspertzeko proiektuak.
 5. Gazteei eta gazteriaren sektorean eta gazte-erakundeetan lan egiten duten pertsonari zuzendutako informazio-ekintzak.
 6. Programaren egiturei sostengua emateko elkarrekin.
 7. Balioestea.
5. Europar lankidetzak bultzatzea gazteriaren arloan.
 1. Gazteen eta gazteria-politiken arduradunen topaketak.
 2. Gazteria hobeto ulertzea eta hobeto ezagutzera bideratutako ekintzei sostengua.
 3. Nazioarteko erakundeekiko lankidetzak.

OINARRI JURIDIKOA

EBAO L 327/30, 2006ko azaroaren 24koa. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1719/2006/EE Ebazpena, 2006ko azaroaren 15ekoa, 2007-2013aldirako "Gazteria ekinen" programa ezartzen duena.

LIFE +

Ingurumenerako finantza-tresna

Gaiak: Ingurumena

Programaren iraupendia: 2007-2013

Programaren aurrekontua: 2.143.409.000 euro

Deialdiak: Urtero deialdi bat irekiko da

Erkidegoaren finantziakzioa: % 50 eta % 75

Subentzio-mota: Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza

Programaren HELBURU nagusia

LIFE+ programaren helburua izango da ingurumen arloan erkidegoaren politika eta legeria ezartzen, eguneratzen eta garatzen laguntzea, eta ingurumena beste politikekin sartzea, garapen jasangarria bultzatze aldera.

Diruz lagun daitezkeen ekintzak:

LIFE+ programak hiru osagai ditu:

1. LIFE+ Natura eta Bioaniztasuna. Honen berariazko helburuak dira:

- Naturaren eta bioaniztasunaren arloan erkidegoaren politika eta legeria ezartzen laguntzea, baita toki- eta eskualde-mailan ere, eta ondoren Natura 2000 sarea garatzen eta gauzatzen laguntzea, itsasertzeko eta itsas espezieak barne.
- Naturaren eta biodibertsitatearen arloan, Erkidegoaren politikak eta legeria garatzeko, balioesteko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko jakintza-basea finkatzen laguntzea;
- Naturaren eta biodibertsitatearen jarraipena eta ebaluazioa egiteko, eta horietan eragina izanzen duten alderdien, presioen eta erreakzioen jarraipena egiteko planteamenduak eta tresnak sortzea eta ezartzea bultzatzea. 0}
- Ingurumenaren arloan gobernatze hobea erraztea, eta interesa duten aldeek, gobernu kanpoko erakundeek barne, naturari eta biodibertsitateari buruzko politiken eta legeriaren inguruko kontsultetan eta aplikazioan parte hartzea bultzatzea

2. LIFE+ Ingurumen Politika eta Gobernamentuak honako helburu hauek ditu:

- Planteamendu, teknologia, metodo eta tresna politiko berritzaileak garatzen eta erakusten laguntzea;
- Ingurumen politika eta legeria garatzeko, balioesteko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko jakintza-basea finkatzen laguntzea;
- Naturaren eta honi eragiten dioten alderdien, presioen eta erreakzioen jarraipena eta ebaluazioa egiteko planteamenduak eta tresnak sortzea eta ezartzea bultzatzea.
- Erkidegoaren ingurumenari buruzko politika ezartzea erraztea, eta ezarpen hori eskualde- eta toki-mailan izatea azpimarratzea;
- Ingurumenaren arloan gobernamendu hobea bultzatzea.

3. LIFE+ Informazioa eta Komunikazioa; honako hauek dira helburuak:

- Ingurumenari buruzko informazioa zabaltzea eta horren inguruko sentsibilizazioa bultzatzea, baso-suteen prebentzioa barne;
- Lagun egiteko neurriak babestea; besteak beste, informazioa, komunikazio-jarduerak eta kanpainak, hitzaldiak eta prestakuntza, baso-suteen prebentzioaren arloko prestakuntza barne.

OINARRI JURIDIKOA

EBAO L 149/01, 2007/06/09. 614/2007 Araudia, 2007ko maiatzaren 23koa, "Life+" Ingurumenerako finantza-tresnari buruzkoa.

MEDIA Europako ikus-entzunezkoen sektoreari sostengua emateko programa

Gaiak: Kultura

Programaren iraunaldia: 2007-2013

Programaren aurrekontua: 754.950.000 euro.

Deialdiak: urteko berariazko hainbat deialdi irekiko dira

Erkidegoaren finantziazioa: Gehienez % 75,00

Subentzio-mota: Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza

Programaren HELBURU nagusia

Europako ikus-entzunezkoen sektoreari sostengua emateko MEDIA 2007 programak honako helburu orokor hauek izanzen ditu:

- Europako kultura- eta hizkuntza-aniztasuna eta ondare zinematografikoa eta ikus-entzunezkoa babestea eta nabarmentzea, publikoak horietarako helmena izatea bermatzea, eta kulturen arteko elkarriketa bultzatzea;
- Europako ikus-entzunezko lanen zirkulazioa areagotzea EBren barnean eta kanpoan;
- Europako ikus-entzunezko sektorearen lehiakortasuna indartzea merkatu ireki eta lehiakorrean.

Diruz lagun daitezkeen ekintzak:

Berariazko helburu eta esku-hartzeak honako hauek izanzen dira:

1. Ikus-entzunezko gaitasunak eskuratzea eta hobetzea:

1. ikus-entzunezko sektoreko europar profesionalen gaitasunak indartzea garapenaren, ekoizpenaren, banaketaren eta zabalpenaren eta promozioaren arloetan:
 - 1.1.1. Gidoiak idazteko teknikak.
 - 1.1.2. Ikus-entzunezko lanen ekoizpenaren, banaketaren eta promozioaren kudeaketa ekonomikoa, finantzarioa eta merkataritza-kudeaketa.
 - 1.1.3. Europako ikus-entzunezko programak ekoizteko, produkzio ondorako, banaketarako, merkaturatzeko eta artxibatzeko teknologia digitalak.
2. Ikus-entzunezko prestakuntza-ekintzen europar dimentsioa hobetzea:
 - 1.2.1 Prestakuntzako europar eragileak sareetan integratzea eta horien mugikortasuna bultzatzea.
 - 1.2.2 Prestatzaileen prestakuntza.
 - 1.2.3 Laguntza zinematografia-eskolei.
 - 1.2.4 Arestian aipatutako 1.2.1 puntuan sostengatutako erakundeak koordinatzeko eta horien promozioa egiteko ekintzak ezartzea.
 - 1.2.5 Beken bitartez, 04/04/30az geroztik EBra atxikitako Estatu kideetako bertako irakasleen parte-hartzea erraztea.

2. Garapena:

1. Europako eta nazioarteko merkatuetara bideratutako ekoizpen-proiektuak (produkzio-enpresa independenteek, bereziki ETEek, aurkeztuta) garatzea bultzatzea.
2. Enpresei eta produkzio-proiektu europarrei zuzendutako finantziazio-planak lantzea bultzatzea, baterako produkzio-proiektuak barne.

3. Banaketa eta zabalpena:

1. Europako banaketa-sektorea indartzea.
2. Europar film ez nazionalak Europako eta nazioarteko merkatuetara eramateko bideak hobetzea.
3. Produkzio-enpresa independenteek sortutako ikus-entzunezko lan europarrak nazioartean zabaltzea bultzatzea.
4. Europako ikus-entzunezko lanen digitalizazioa bultzatzea.
5. Europako film ez nazionalen portzentaje esanguratsua emanen dituzten aretoek formatu digitalean banatzeak eskaintzen dituen aukerak baliatzea bultzatzea.

4. Promozioa:

1. Europako ikus-entzunezko lanen zirkulazioa hobetzea.
2. Europako eta nazioarteko publikoak Europako ikus-entzunezko lanen berri izateko aukera hobetzea.
3. Nazio-erakundeen artean filmak eta ikus-entzunezko programak promozionatzeko ekintza bateratuak bultzatzea.
4. Europako ondare zinematografikoa eta ikus-entzunezko ondarea promozionatzeko eta horietara heltzeko ekintzak bultzatzea.
5. Proiektu pilotuak

OINARRI JURIDIKOA

EBAO L 327/12, 2006/11/24. 1718/2006/EE Erabakia, 2006ko azaroaren 15eko, Europako ikus-entzunezko sektoreari sostengua emateko programa ezartzeari buruzkoa.

Ikaskuntza iraunkorraren arloko ekintza-programa

Gaiak: Hezkuntza eta prestakuntza
Programaren iraunaldia: 2007-2013
Programaren aurrekontua: 6.970.000.000
Deialdiak: urteko berariazko hainbat deialdi irekiko dira
Erkidegoaren finantziak: gehienez % 75
Subentzio-mota: Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza

Programaren HELBURU nagusia

Programaren xedea da Europako Erkidegoaren barnean hezkuntza eta prestakuntza- sistemen artean elkar trukitzea, lankidetzaren mugikortasuna bultzatzea, mundu mailako erreferente bihurtzea.

Sektorekako azpiprogramak honako hauek izanen dira:

1. COMENIUS programa, bigarren hezkuntzako bigarren zikloaren amaiera arte eskolaurreko eta eskola-hezkuntzan parte hartzen dutenen irakaskuntza- eta ikaskuntza-premiak, eta heziketa hori ematen duten ikastetxeen eta erakundeen premiak asetzera zuzendua;
2. ERASMUS programa, lanbide-heziketan eta prestakuntzan parte hartzen dutenen irakaskuntza- eta ikaskuntza-premiak (hirugarren mailakoena salbu), eta heziketa hori ematen edo bideratzen duten ikastetxeen eta erakundeen premiak asetzera zuzendua;
3. LEONARDO DA VINCI programa, lanbide-heziketan eta prestakuntzan parte hartzen dutenen irakaskuntza- eta ikaskuntza-premiak (hirugarren mailakoena salbu), eta heziketa hori ematen edo bideratzen duten ikastetxeen eta erakundeen premiak asetzera zuzendua;
4. GRUNDTVIG programa, helduen heziketa-mota guztietan parte hartzen dutenen irakaskuntza- eta ikaskuntza-premiak, eta heziketa hori ematen edo bideratzen duten ikastetxeen eta erakundeen premiak asetzera zuzendua.

Diruz lagun daitezkeen ekintzak:

- Prestakuntza iraunkorrean parte hartzen duten pertsonen mugikortasuna;
- Aldebiko eta alde anitzeko elkarteak;
- Alde anitzeko proiektuak, bereziki hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen kalitatea bultzatzera bideratuak, estatuz gaindiko berrikuntza besterenganatuz;
- Aldebakarreko proiektuak eta proiektu nazionalak;
- Alde anitzeko proiektuak eta sareak;
- Ikaskuntza iraunkorraren arloan, politikak eta sistemak behatzea eta horien analisia;
- Jardunbiderako diru-laguntzak, zenbait funtzionamendu- eta administrazio-kostu ordaintzeko;
- Ikaskuntza iraunkorreko programako helburuak bultzatzera bideratutako bestelako ekimenak.

ONARRI JURIDIKOA

EBAO L 327/45, 2006ko azaroaren 24koa. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1720/2006/EE Ebazpena, ikaskuntza iraunkorraren arloan ekintza-programa ezartzen duena.

KULTURA Kultur egitasmoa

Gaiak: Turismoa, kirola, kultura eta ondarea.
Programaren iraunaldia: 2007-2013
Programaren aurrekontua: 354.000.000 euro
Deialdiak: urtero berariazko hainbat deialdi irekiko dira
Erkidegoaren finantziak: Gehieneko laguntza: % 60,00 edo 500.000,00 €.
Gutxieneko laguntza: % 50,00 edo 50.000,00 €.
Subentzio-mota: Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza

Programaren HELBURU nagusia

Europarrek partekatzen duten eta guziona den kultur ondarean oinarritutako kultur gune bat bultzatzea, parte hartzen duten herrialdeetako sortzaileen, kultur eragileen eta kultur erakundeen artean kulturaren arloan lankidetzaren garatzea, eta europar herritartasuna sortzea bultzatze aldera.

Diruz lagun daitezkeen ekintzak:

Helburu orokorrak eta zehatzak lortzeko, honako ekintza hauek paratuko dira abian:

1. Ondoren aipatzen diren ekintzei, besteak beste, zuzendutako sostengua:
 1. Hainbat urtetarako lankidetzaren proiektuak.
 2. Lankidetzaren ekintzak.
 1. Lankidetzaren ekintzak.
 2. Itzulpen literarioen proiektuak.
 3. Lankidetzaren ekintzak hirugarren herrialdeekin.
2. Europako erakunde aktiboekin sostengua kulturaren arloan.
3. Análisi-lanei, informazio-bilketari eta zabalpenari, eta Europako kultur lankidetzaren arloan eta Europako kultur politika bat garatzearan arloan proiektuak izan dezaketen eragina al bait gehien areagotzera bideratutako ekintzei sostengua:
 1. Kultur guneen sostengua.
 2. Kultur lankidetzaren arloan landutako azterlanen sostengua.
 3. Informazio-bilketari eta zabalpenari, eta kultur lankidetzaren arloan proiektuak izan dezaketen eragina al bait gehien areagotzera bideratutako ekintzei sostengua.

ONARRI JURIDIKOA

EBAO L 378/22, 2006/12/27 1903/2006/EB erabakia, 2006ko abenduaren 12koa, 2007-2013 aldirako kultur programa ezartzen duena.

Berrikuntzarako eta lehiakortasunerako programa

Gaiak: IKT eta informazioaren gizartea, energia eta berrikuntza
Programaren iraunaldia: 2007-2013
Programaren aurrekontua: 3.621.000.000 euro
Deialdiak: urteko berariazko hainbat deialdi irekiko dira
Erkidegoaren finantziazioa: gehienez % 50
Subentzio-mota: Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza, aurrerakin itzulgarriak eta maileguak

Programaren HELBURU nagusia

Erkidegoa ezagutzaren gizarte aitzinatua den aldetik, Erkidegoaren lehiakortasuna eta berrikuntzarako gaitasuna sustatzea, ekonomi ezagutza orekatuan eta guztiz lehiakorra izanen den merkatu-ekonomia sozialean oinarritutako garapen jasangarriaren bitartez, eta ingurumenaren babes-maila eta ingurumenaren kalitatea nabarmen babestuz.

Programaren helburuak honako hauek izanen dira:

- * Enpresen, eta, bereziki, enpresa txikien eta ertainen (ETE) lehiakortasuna bultzatzea.
- * Berrikuntza sustatzea, berrikuntza ekologikoa barne.
- * Informazioaren gizarte lehiakor, berritzaile eta inklusiboa garatzea azkartzea.
- * Sektore guztietan, garraioan barne, eraginkortasun energetikoa, eta energia-iturri berriak eta berriztagarriak bultzatzea.

Diruz lagun daitezkeen ekintzak:

Berrikuntzarako eta lehiakortasunerako esparru-programa (BLP) berariazko azpiprogramez osatua dago;

- 1. Enpresa-ekimenerako eta berrikuntzarako programa**
- 2. IKTei laguntzeko programa politikoa**
- 3. Energia adimenduneko programa**

1. Enpresa-ekimenerako eta berrikuntzarako programa

1. Programa honek bere baitan bilduko ditu hainbat urtetarako enplegu-programen gainean aldez aurretik sakabanatu ziren jarduerak, eta industri lehiakortasunerako eta LIFE-Ingurumena programaren eko-berrikuntzarako jarduerak (ingurumenaren arloko teknologiak barne). BLPa aldez aurretiko programetan probatu eta arrakastaz garatu diren berrikuntza-jardueretan ere egituratuko da.

Programa horrek finantziazioa emanen die enpresei berrikuntzak egin ditzaten, horietan inbertitzeak izan ditzaketen arriskuak partekatuzko eta inbertsio pribatua sustatzeko, enpresa berri eta berritzaileak sortzeko, eta zabalitze bidean diren hazkunde gaitasun handiko enpresei sostengua emateko; neurri batean enpresen kapital propio eza konpentsatze aldera. Programa honi esker, ETEek informazioa, eta ETEen inguruan Europar Batasunak garatzen dituen jarduerak eta politikak eskuratu ahal izanen dituzte modu erraz, argi eta eraginkorrean. Horretarako, enpresei sostengua emateko sareak erabiliko dira; besteak beste, Euro info guneak (CIE) eta Berrikuntzarako lotura guneak (IRC): horiek "leihatila-bulego" bakarra sortuko dute.

Azpiprograma horrek honako ekintzak hartuko ditu barne:

- ETEak abian paratzeko eta horiek handitzeko, eta berrikuntza-jardueretan (berrikuntza ekologikoa barne) inbertsioak egiteko finantziazioa
- ETEen arteko lankidetzak lantzeko ingurune mesedegarri bat sortzea
- Enpresetan berrikuntza sustatzea, berrikuntza ekologikoa barne
- Enpresa-ekimena eta berrikuntzarako kultura
- Erreforma ekonomikoa eta administratiboa, enpresarekin eta berrikuntzarekin lotua

Azpiprogramaren lehentasunak honako hauek bitartez ezarriko dira:

- Finantza-tresna berriak: ETE berritzaile eta hazkunde azkarrekoetarako mekanismoak (BHM); ETE bermeko mekanismoak eta gaitasunak garatzeko sistemak

- Enpresei eta berrikuntzara, elkarizketara eta enpresaburuen arteko lankidetzara zuzendutako laguntza-zerbitzuak; berrikuntza eta teknologia-zerbitzuak eta ezagutzak besterentzeko zerbitzuak; ETEak ikerketa eta garapen teknologikoko (IGT) Erkidegoaren esparru-programan parte hartzea bultzatuko duten zerbitzuak.
- Enpresa-berrikuntza sustatzeko tresna
- Parte hartuko duten herrialdeekin politikak aztertu, garatu eta koordinatu
- Agintarien arteko senidetzea, estatuan eta erregioan

2. ICTak bultzatzeko programa politikoa.

Programa horrek e-TEN, Modinis eta e-Content programen helburuak berrabiaraziko ditu, i2010 Europa 2010eko Informazioaren Gizartearen izenekoan jasotako estrategia berriaren arabera

ICTak sustatzeko laguntza-programak honako ekintza hauek jasoko ditu:

- Informazioaren europar gune bakarra garatzea, eta informazioaren produktuen eta zerbitzuen barne-merkatua finkatzea
- Berrikuntza sustatzea, ICTak gehiago sartuz, eta ICTetan inbertsio gehiago eginez
- Informazioaren gizarte inklusiboa eta interes publikoko zerbitzu efiziente eta eraginkorragoak garatzea, eta bizi-kalitatea hobetzea.

Azpiprogramaren lehentasunak honako hauen bitartez ezarriko dira:

- Jarduera hobeei eta gaikako sareei buruzko proiektuak eta ekintzak.
- Parte hartuko duten herrialdeekin politikak aztertu, garatu eta koordinatu
- Promozioa, komunikazioa, informazioa trukitzea eta zabalzea
- Interes komuneko proiektuak: Estatu kideekin koordinaturik landutako zehaztapen teknikoetan oinarritutako kontratazioa.

3. Energia adimenduneko programa.

Europarako energia adimenduneko programak energia berriztagarri berriak erabiltzea bultzatuko du, eta eraginkortasun energetikoa hobetuko du, eta aldi berean energiaren inguruko gure arautegia ezarriko du. Programaren xedea da hitzartutako europar estrategiaren barnean hartuko diren neurriak azkartzea, eta energia iraunkoraren arloan helburuak betetzea, energia berriztagarriaren zatia areagotuz, eta gure azken kontsumo energetikoa murriztuz.

Honako hauek bideratuko diren neurriak hartzen ditu barne:

- Eraginkortasun energetikoa, eta energia-baliabideen erabilpen zentzuzkoa sustatzea (SAVE)
- Energia-iturri berriak eta berriztagarriak bultzatzea, eta energia-dibertsifikazioa sustatzea (ALTENER)
- Garraioaren sektorean, eraginkortasun energetikoa, eta energia-iturri berriak eta berriztagarriak bultzatzea (STEER)

Gainera, azpiprograma honek ekimen horizontalak bultzatuko ditu, besteak beste:

- Eraginkortasun energetikoa eta energia-iturri berriztagarriak ekonomiaren hainbat sektoretan txertatzea
- Ekintza edo proiektu berean inplikaturik diren hainbat tresna, erremintak eta alderdiak konbinatzea

Azpiprogramaren lehentasunak honako hauen bitartez ezarriko dira:

- Promoziorako eta zabalpenerako proiektuak
- Merkataritzan aplikatuko diren proiektuak

ONARRI JURIDIKOA

EBAO L 310/15, 2006ko azaroaren 9koa. 1639/2006/EE Erabakia, 2006ko urriaren 24koa, berrikuntzarako eta lehiakortasunerako 2007-2013 esparru-programa finkatzen duena.

"Safer Internet" programa, haurrak Interneten eta bestelako komunikazio-teknologiaren erabilera babesteari buruzkoa (2009-2013)

Gaiak: Prestakuntza, osasuna, kontsumoa.

Programaren iraunaldia: 2009-2013

Programaren aurrekontua: 55 milioi euro

Deialdiak: urtekoa

Erkidegoaren finantziakzioa: Gehienezko laguntza: 100,00 %

Subentzio-mota: Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza

Programaren HELBURU nagusia

Erkidegoaren programa, Interneten eta bestelako komunikazio-teknologiaren erabilera ziurra bermatze aldera, batez ere, haurrei dagokienez, eta lineako eduki bidegabeei eta portaera kaltegarriari aurre egite aldera.

Diruz lagun daitezkeen ekintzak:

Jarduera-ildoak:

1. Herritarrak sentsibilizatzea:

- Lineako teknologiaren erabilera inguruan herritarrak sentsibilizatzea, eta horri buruzko informazioa ematea.
- Gurasoek eta seme-alabek lineako segurtasunari buruzko galderei erantzunak topatzeko harreman guneak ezartzea, adingabeak erakartzeari eta eskola-ziberjazarpenari aurre nola egin aholkatzea barne.
- Emaizta onak izan ditzaketen sentsibilizazio-metodo eta tresna ekonomikoak bultzatzea.
- Europan, jarduera onak trukatzeko eta mugaz gaindiko lankidetzak bermatzea.
- Nazioartean, jarduera onak trukatzeko eta lankidetzak bermatzea.

2. Lineako eduki bidegabeen eta portaera kaltegarrien aurka borrokatzea:

- Herritarrei lineako eduki bidegabek eta portaera kaltegarriak salatzea erraztuko dieten harreman guneak eta informazio- eta laguntza-telefonoak eskaintzea eta horiek sustatzea.
- Lineako portaera kaltegarriari aurre egitea, bereziki, adingabeak erakartzeari eta eskola-ziberjazarpenari dagokienez. Jarduerak adingabeak erakartzeari eta eskola-ziberjazarpenari aurre egitera bideratuko dira.
- Lineako eduki bidegabek eta portaera kaltegarriari behar bezala aurre egiteko soluzio teknikoak ezartzea bultzatzea, eta azken erabilzaileei teknologia horiek nola aplikatu daitezkeen jakinaraztea.
- Estatuetan eta EbN alde interesdunen artean lankidetzak, eta informazioa, esperientzia eta jarduera onak trukatzeko bultzatzea.
- Nazioartean eduki bidegabek eta portaera kaltegarriari aurre egiteko borrokan lankidetzak, eta informazioa eta esperientziak trukatzeko bultzatzea.
- Domeinu-izenen erregistratzaileak jotzea oraindik ere erregistraturik ez daudenean, eta dagoen lankidetzak indartzea.

3. Lineako ingurune seguruagoa sustatzea:

- Alde interesdunen artean lankidetzak, eta informazioa, esperientziak eta jarduera onak trukatzeko bultzatzea.
- Alde interesdunei autoerregulazio eta baterako erregulazio-sistema egokiak garatzea eta ezartzea eskatzea.
- Hornitzaileei etiketatze-sistema bat garatzera bultzatzea, eta eginkizun horretan laguntzea.
- Haurrak lineako ingurune seguruagoa sortzen adoretzea.
- Lineako eduki kaltegarriari aurre egiteko tresna egokiei buruzko informazioa areagotzea.
- Europar Batasunean eta nazioartean hartutako ikuspegi bategarritasuna bermatzea.

4. Ezagutzen oinarri bat finkatzea:

- Ikuspegi koordinatua bultzatzea, dagokien arloetako azterlanak egiteko.
- Haurrek lineako teknologiaz egiten duten erabilpenari buruzko informazio eguneratua ematea.
- Estatu kideen estatistikak eta joerak aztertzea.
- Haurrek linean pairatzen duten biktimizazioari buruzko azterlanak sustatzea.
- Lineako teknologiaren erabilpenaren segurtasuna hobetzeko modu eraginkorrei buruzko azterlanak sustatzea.
- Gaur egungo teknologiaren eta gora bidean diren erabilera hurrengoak sortzen dituen ondorioak hobeto ezagutzea.

OINARRI JURIDIKOA

Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 854/2005/EB Erabakia, 2005eko maiatzaren 11koa, Interneten eta lineako teknologia berrien erabilera seguruagoa sustatzeko hainbat urtetarako Erkidegoaren programa sortzen duena.

Ikerketa eta Garapen Teknologikorako **zazpigarren** Esparru Programa

Gaiak: Ikerkuntza aplikatua eta berrikuntza

Programaren iraunaldia: 2007-2013

Programaren aurrekontua: 50.521 milioi euro

Deialdiak: urteko berriazko hainbat deialdi irekiko dira, azpiprogramaren arabera

Erkidegoaren finantziazioa: gehienez % 50

Subentzio-mota: Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza

Programaren HELBURU nagusia

Zazpigarren Esparru Programa Ituneko 163. artikuluan deskribatzen diren helburuak lortze aldera garatuko da. Industri lehiakortasuna indartzea, eta beste politika komunitarioak garatzeko premiei erantzungo die. Halaber, nazio eta erregio mailan jarduerak garatzea ahalbidetuko duen Ikerketarako Europar Gunea sortuko duen ezagutzan oinarritutako gizarte sortzen lagunduko du.

Diruz lagun daitezkeen ekintzak:

Zazpigarren Esparru Programaren berriazko lau programak honako hauek dira:

1. Lankidetzak
2. Ideiak
3. Pertsonak
4. Gaitasunak

OINARRI JURIDIKOA

EBAO L 412/01, 2006ko abenduaren 30ekoa. 1982/2006/EE Erabakia, 2006ko abenduaren 18koa, ikerketa, garapen teknologiko eta erakusketa-ekintzetarako Europako Erkidegoaren zazpigarren Esparru Programari buruzkoa.

1. Lankidetzak

Programaren xedea da nazioaz gaindiko esparruan industriaren eta ikerketaren arteko lankidetzak bultzatzea eta lotura indartzea. Helburua, berriz, ikerketaren arlo nagusietan aitzindaritza erakitzea eta finkatzea da. Nazioaz gaindiko lankidetzaren sostengua lau azpiprogramak eratuko dute:

- Elkarlaneko ikerkuntza EBren bilaketaren zati nagusia eta finantziazioaren bihotza izanen da.
- Batera garatuko diren ekimen teknologikoen Europako plataforma teknologikoen abiarazitako lana izanen dute abiapuntu nagusiki.
- Erkidegokoak ez diren ikerketa-programen koordinazioa.
- Nazioarteko lankidetzak.

EBren ekintzek aipagai dituzten bederatzia gaiak honako hauek dira:

- osasuna;
- elikagaiak, nekazaritza eta bioteknologia;
- informazioaren eta komunikazioaren teknologiak;
- nanozientziak, nanoteknologiak, produktorako materialak eta teknologia berriak;
- energia;
- ingurumena (klima-aldaketa barne);
- garraioa (aeronautika barne);
- zientzia sozioekonomikoak eta giza zientziak;
- espazioa;
- segurtasuna.

2. Ideiak

Programa honek europar ikerkuntzaren dinamismoa, sormena eta bikaintasuna indartuko ditu ezagutzaren mugetan arlo zientifiko eta teknologiko guztietan, ingeniaritza, zientzia sozioekonomikoak eta giza zientziak barne. Europa erakargarri bihurtzea Europako eta hirugarren herrialdeetako ikertzaileentzat, eta industriak ikerkuntzan inberti dezan. Horretarako, Europa mailan finantziatio-egitura lehiakorra abiaraziko da (estatuen finantziatioa osatu eta ordezkatu ez duena), talde independenteek landutako «ezagutzaren mugak ikertzeko». Programa honetako alderdi garrantzitsuak izanen dira ikerketaren emaitzen komunikazioa eta zabalpena.

Ekintza hori Europako Ikerketa Kontseiluak (EIK) gainbegiratu du.

Europako Ikerketa Kontseiluaren asmoa da:

- Zientziaren, ingeniaritzaren eta erudizioaren arlo guztietan Europako zientzia-ahalegin hoberenetatik hoberenak babestea.
- Ezagutzaren mugen goranzko ikerketa bultzatzea; alegia, ikertzaileek bultzatutakoa oso-osorik.
- Europar ikerkuntzaren aitzindari independente nagusien belaunaldi finkatuaren eta hurrengo belaunaldiaren lana sustatzea.
- Proposamen berritzaileak saritzea, eta asmoaren kalitatea azpimarratzea ikerketa-esparru zehatzaren gainetik.
- Europar ikerketarako dagoen gaitasun aniztasuna baliatzea, eta etorkizun handien duten ideietara funtsak

bideratzea.

- Europako ikerkuntzak, eta gaurko eta biharko ikerlaririk onenek ezagutzaren mugetan dituzten ospea eta ikusgarritasuna areagotzea.
- Bikaintasuna Europako ikerkuntzaren muinean berean kokatzea.

3. Pertsonak

Europar ikerkuntzaren eta teknologiaren giza potentziala kuantitatiboki eta kualitatiboki indartzea, eta "Marie Curie" ekintza-multzo koherentea ezartzea.

Laburpenean deskribatutako laguntzak pertsonen azpiprograman jasota daude, eta 4.750 milioi euroko zuzkidura dute denboraldi osorako. Laguntza horiek Europar ikerkuntzaren eta teknologiaren giza potentziala kuantitatiboki eta kualitatiboki indartzera, eta gazteek ikertzaile karrera hartzera bultzatzera zuzenduta daude, Europako ikertzaileak Europar geratzera animatuz, eta Europara mundu osoko ikertzaileak erakarriz, Europar Batasuna ikertzaile onenentzat erakargarri bihurtzeko. Hori lortzeko da "Marie Curie" ekintza-multzo koherentea abian paratuz.

Pertsonen azpiprogramak bost jardura biltzen ditu:

1. Ikertzaileen hasierako prestakuntza
2. Prestakuntza karreraren iraupen eta garapen osoan zehar
3. Industriaren eta unibertsitatearen arteko igarobideak eta elkarteak
4. Nazioarteko dimentsioa
5. Berariazko ekintzak

Ikertzaileen hasierako prestakuntzak hasierako prestakuntza bultzatzea izanen du helburu, eta ikertzaileen karrerako lehen lau urteetara bideratuko da, nahiz eta urte batez luza daitekeen aipatu prestakuntza bukatzeko beharrezkoa denean. Erkidegoaren laguntza arlo horretan honako hauek hartuko ditu barne:

- * Ikertzaileak karreraren hasieran kontratatzea, prestakuntza jaso dezaten.
- * Goi-mailako irakaskuntza-zentroetan katedrak sortzea, edo lanpostu baliokideak sortzea bestelako ikerkuntza-erakundeetan eta ikertzaile adituak dituzten enpresetan.
- * Sareak finkatzea, eta iraupen laburreko prestakuntza-ekintzak antolatzea (lpngresuak, udako eskolak, eta prestakuntza-ikastaro espezializatuak).

4. Gaitasunak

7EPko Gaitasunak programari buruzko Batzordearen proposamenaren helburua da Europa osoan ikerkuntza- eta berrikuntza-gaitasunak areagotzea, eta aprobetxamendu optimoa bermatzea.

Zazpi arlo zabal:

- Ikerkuntza-azpiegiturak
- Ikerkuntza ETEen mesedetan
- Ezagutzaren erregioak, eta eskualde-mailako ikerkuntza-elkarteei sostengua
- Konbergentzia-eskualdeen ikerketa-ahalmena
- Zientziak eta gizartea
- Ikerkuntza-politiken garapen koherentea bultzatzea
- Nazioarteko lankidetzak

Berariazko programa honen xedea da, halaber:

- Politiken garapen koherentea bultzatzea;
- Lankidetzak-programa osatzea;
- Koherentzia, eta Estatu kideen politiken eragina hobetuko dituzten Erkidegoaren politikan eta ekimenetan laguntzea;
- Eskualde- eta kohesio-politikekiko, hezkuntza- eta prestakuntza-programekiko eta Lehiakortasunerako eta Berrikuntzarako Esparru Programarekiko sinergiak biltzea.

"Europa hiritarrekin" programa (2007-2013)

Gaiak: gizarte-proiektuak, hiritartasuna eta lankidetzak

Programaren iraunaldia: 2007-2013

Programaren aurrekontua: 215.000.000 euro

Deialdiak: urtero berariazko hainbat deialdi irekiko dira

Erkidegoaren finantziak: deialdiaren arabera

Subentzio-mota: Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza

Programaren HELBURU nagusia

Herritarrei gero eta Europa hurbilagoan, demokratikoagoan eta nazioartean bideratuagoan, batuagoan eta kultur aniztasunari esker aberatsagoan elkarrekin eragiteko eta Europa hori eraikitzen parte hartzeko aukera ematea.

Diruz lagun daitezkeen ekintzak

1. Herritar aktiboak Europan: hirien arteko senidetzeak eta hiritarren proiektuak eta sostengu-neurriak.
2. Gizarte zibil aktiboa Europan: politika publikoari buruzko ikerketa-erakunde europarrei (hausnarketa-foroak) egiturazko sostengua, Europako gizarte zibileko erakundeei egiturazko sostengua, eta gizarte zibileko erakundeei abiarazitako proiektuei sostengua.
3. Elkarrekin Europarekin: ekintza oso ikusgarriak, azterlanak eta informazio- eta hedapen-tresnak.
4. Europaren memoria historiko aktiboa.

ONARRI JURIDIKOA

EBAO L 378/32, 2006/12/27 1904/2006/EB erabakia, 2006ko abenduaren 12koa, 2007-2013 aldirako Europa hiritarrekin programa ezartzen duena.

